

## EGUESIBARKO KIROLAREN OSPEAREN GALERIAREN ARAUDIA 2025

### 1.- OSPEAREN GALERIAREN XEDEA

*Lehena:* Eguesibarko Kirolaren Ospearen Galeriaren helburua da foru erkidego, estatu, mundu eta olinpiar mailan lorpenak izan dituzten adin nagusiko kirolariak betiereko bihurtzea.

Diziplina desberdinetako garaile berriekin etengabe elikatuko da.

Haien kirol-ibilbidean finkatutako helburuak adierazpenik gorenera eraman dituztenak kirolarien ahalegina, talentua, diziplina eta lana ohoratzeko modu bat da.

### 2.- OSPEAREN GALERIAN EGON DAITEZKEEN KIROLARIAK

*Bigarrena:* Eguesibarko Kirolaren Ospearen Galerian sartu ahal izango dira gaur egun beren kirol-bizitzan jardunean dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiak, baldin eta kirol-jardueretan eta gizartearekiko harremanetan jokabide garbi eta eredugarria badute, eta aukeratzen dituzten unean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eguesibarkoa izatea edo Ibarrean erroldatuta egotea gutxienez duela 5 urtetik hona, etenik gabe.
- Kirol-modalitate baten kategoria absolutuan honako kirol-lorpen hauetako bat lortu izana, eta lorpen horiek kategoria absolututik beherako kategorietan (benjamin, alevin, infantil, kadete junior, sub-19, etab.) izan gabe:
- - Kirol-modalitate bateko kategoria absolutuan honako kirol-lorpen hauetakoren bat lortu izana. Maila absolututik beherako kategorietan lortutakoak (benjamin, alebin, haur, junior kadete, sub-19 eta abar) ez dira kontuan hartuko:

Norbanako kirolen kasuan

Nafarroako txapelduna

Espainiako txapelduna

Espainiako txapeldunordea

Espainiako 3. sailkatua

Europako txapelduna

Europako txapeldunordea

Europako 3. sailkatua

Munduko txapelduna

Munduko txapeldunordea

Munduko 3. sailkatua

Urrezko domina olinpikoa edo paralinpikoa


Zilarrezko domina olinpikoa edo paralinpikoa

Brontzeko domina olinpikoa edo paralinpikoa

Diploma olinpikoa edo paralinpikoa

Nazioarteko lehiaketetan parte hartuz gero, kirolaria dagokion Espainiako Federazioak hautatu behar du, eta Espainiako selekzioko kide gisa parte hartu behar du.

Taldekako kirolen kasuan:



Nafarroako edo Espainiako Selekzioan parte hartu izana lehen mailako txapelketa, lehiaketa, torneo, trofeo, liga edo bestelako lehiaketetan, bai eta nazioarteko izen handiko tituluak lortzeko aukera ematen dutenetan ere (Europako txapelketa, munduko txapelketa edo antzekoa), edo bere taldea kategoria nazional ofizial gorenekoa izatea.

### **3.- ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA.**

Hirugarrena: a) Ospearen galeriarako hautagaitzak Eguesibarko elkartearen erregistro orokorrean inskribatutako edozein kirol-klubek, Eguesibarren errolatutako 16 urtetik gorako herritarrek eta Eguesibarko Udaleko zinegotziek aurkeztu ahal izango dituzte.

Aurkezten diren hautagaitzak dagokion web inprimakiaren bidez egin beharko dira, eta proposatutako kirolariaren merezimenduak oinarritzeko egoki irizitako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

b) Hautagaitzak aurkezteko epea 2026eko urtarrilaren 31n amaituko da.

Kirolari bat Eguesibarko ospearen galerian onartzeko ebazpena Kiroleko Zinegotzi Ordezkariak emango du ebazpen bidez.

Proposatutako kirolariari kontsulta egingo zaie Zinegotzi Ordezkariak ebazpena eman aurretik.

Saritutakoak, Eguesibarko Kirolaren Galan sarituko dira.

### **4.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**

Laugarrena: Eguesibarko Ospearen galerian onartutako kirolariak ondorengo betebeharrak izango dituzte:

Argazki bat eman beharko dute, tratatua izan eta Ospearen Galerian jartzeko Haien lorpenak aitortzeko Eguesibarko Kirolaren Ospearen Galerian egingo den ekitaldira joan beharko dute

### **5.- OSPEAREN GALERIAKO KIDE IZAERA GALTZEA**

Bosgarrena: Eguesibarko Kirolaren Ospearen Galerian onartuak izan diren kirolariak bertako kide izaera galdu ahal izango dute Kirol Batzordearen erabakiaren eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkariaren ebazpen arrazoituaren bidez, baldin eta kiroltasunaren aurkako jokabide publiko eta garrantzitsu bat gertatzen bada, edo Ibarreko kirolerako nahiz Udalerrirako aparteko beste egoera negatiboren bat gertatzen bada.